

FUNTZIONAMENDU PRINTZPIOAK ETA ARAUAK

Dinamika honetan parte hartzen dugun pertsona guztiok, desberdinak izanik ere, interes komunak ditugu.

- Gure **interes komuna**, herritar bezala dugun gure iritzi eta ikusmira azaltzea da, hau da, gure ekarpen propioa egitea
- Gure **desberdintasunek** euskal gizartearen **aniztasunaren** isla dira.

Beste hitz batzuetan: elkar lanketarako desioa eta grina partekatzen dugu, horretarako abiapuntuak anitza badira ere.

- Adibidez, gure artean publikoki hitz egiteko erosoago arituko denik zein zailtasun handiagoak dituenik izango dira; baita erantzun ugari edota galdera mordoa izango duenik ere.

Guztioi arduratzen gaituen horren inguruan lan egiteko asmoz, gure arteko desberdintasunak (parte hartuko dugunon aniztasuna) kudeatu behar dugu eta horretarako saioa gidatuko duten hiru printzipio aintzat izan behar ditugu: berdintasuna, errespetua eta eraginkortasuna.

Berdintasuna

Parte hartzeko guztion artean berdintasuna bermatu behar dugu. Partaide orok bere ikuspuntua adierazteko aukera izatea garrantzitsua da. Horretarako denbora mugatua eta laburra dugunez, pertsona orok baldintza beretan parte hartzeko aukerak baimendu eta bermatzea garrantzitsua izango da. Horrenbestez, kontutan izan beharko dugu:

- o Norbanako moduan parte hartzen dugu
 - **Saio honetan bakoitzak bere burua ordezkatzan du**, alderdi politiko, gizarte mugimendu edota beste kolektibo bateko kide garen arren.
- o Gure parte hartzeak **ezin** du gainontzekoen parte hartzea **oztopatu** eta galarazi.
 - Eztabaida monopolizatzen ekidin behar dugu
 - Hizketan daudenak moztan saihestu behar dugu
- o Gure jarrerak gainontzekoen parte hartzea **sustatu** behar du
 - Enpatia, keinuen bidez publikoki hitz egiteko abilezia gutxiago edo zailtasunak dituztenen parte hartzea samurtuz.

Errespetua

Partaide kideen arteko errespetuaren zaintza guztion ardura da; horretarako besteen hitza errespetatzea da berriro ere gakoa. Horrez gain, errespetuak ondorengo konpromisoen betetzea dakar:

- o Gure jarrera, begirada, keinu, atentzioen bidez **besteak zilegitzat hartu**; giro eroso eta atsegina eraikiz.
- o **Desadostasunak** naturalizat hartu, aniztasun sozialaren adierazpen diren heinean. Desberdintasunak argiak diren eremuetan besteak konbentzitzen ekidin behar dugu.
- o **Azaldu nahi dugun horretan fokatu** behar dugu, besteengandik jasotako erantzunei gehiegi erreparatu gabe.
- o Gure Herriak bizi izan dituen eta egun bizi dituen **min eta sufrimendu anitzen onarpena**.

Eraginkortasuna

Egingo dugun ariketa, eztabaidatzeaz gain, guztion arten eraikitzeko asmoan oinarritzen da. Horretarako aukera izango dugu soilik berdintasuna (pertsona orok parte hartzeko aukera) eta errespetua (pertsona orok tentsiorik gabe parte hartzeko aukera) bermatzen baditugu. Bestalde, dinamiken eraginkortasunerako, beste hainbat kontu gogoan izan behar ditugu:

- o Taldeen arteko talkan **denborarik** ez galdu (atsedenetik bueltak, talde txikietan, osoko bilkuran...)
- o Solasaldia kudeatzeko bakoitzak beteko duen **rol-papera** (hitzemateak, akta, denbora banaketa) adostu.
- o Desberdintasunak argiak diren gaiei buruzko eztabaidak alde batera utzi, **adostasun puntuak topatu** gure ikusmoldeak aldatuz eta gerturatuz.

Guzti hau esanda, **funtzionamendurako zenbait arau** ondorioztatu ditzakegu:

- o Norbanako moduan hitz egin
- o Interbentzioak automugatu
- o Kideen interbentzioa erraztu
- o Hitza banatu eta gure txanda itxoin
- o Interbentzioak eta taldeko dinamika ez moztu
- o Berretsi eta ez aurkatu
- o Errespetuzko adierazpenak erabili
- o Dinamizatzaileen lana arindu, haien argibideak jarraitu eta errespetua eta berdintasuna bermatzeko gako direla ulertu
- o Partaideen artean berdintasun eta errespeturik bermatzen ez den kasuetan, dinamizatzaileen irizpena naturaltasunez hartu.